

[aceptar](#)

Uso de cookies

Este sitio web utiliza cookies, tanto propias como de terceros, para mejorar su navegación y mostrarle publicidad relacionada. Si continúa navegando, consideramos que acepta su uso. Puede obtener más información en nuestras [Condiciones de uso](#)

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Hamletek euskaraz hitz egingo du taula gainean

Azaroaren 2an Azepeira iritsiko da antzezlanaz

'Errautsak' lanarekin gertatu zen bezala, hiru talde batu dira proiektua aurrera eramateko

ñaki mendizabal elordi - Martes, 29 de Octubre de 2013 - Actualizado a las 06:07h

BILBO. Shakespeare euskaraz zenbat biderrez mintzatu den badakigu. Toribio Altzagak *Macbeth* euskaratu zuenetik, tarteka ekarri dira euskarara idazle famatuaren testuak. Xabier Mendiguren Bereziartu, Joanes Urkixo, Joxeantonio Sarasola edo Bedita Larrakoetxea ausartu dira horretan, ipuin zein antzerki-piezak itzuliz. *Hamlet* bera ere birritan izan da euskaratua: 1951n Bingen Ametzagak hartu zuen beharlekua (Ekinen), eta 2001ean Juan Garziak egin zuen azken ahalegina, bertsio bikaina onduz Ibaizabal argitaletxearentzako. Horietaatik guztietatik edan du Xabier Mendiguren Elizegik, eta, testuinguru historikoa aldatuz, gurea ekarri nahi izan ditu oraingoan Danimarkako printze gizona buru-hauste eta dramak.

Mendigurenen bertsioa ostiralean estreinatuko dute Luhuson, Lapurdin. Larunbatean Azepeira iritsiko da eta igandean Bilbora, Arriaga Antzokira (atzo sarreraren %80a saldua zegoen jada).

ADAPTAZIOA Mendigurenen adaptazioa Artedramak, Le Petit Théâtre de Paineik eta Dejabu Panpin Laborategiak ekoiztu dute, eta hiru konpainietako aktoreek parte hartuko dute antzezpenean, *Errautsak* gogoangarrian egin zuten legez.

Atzo, *Hamlet* gurearen zuzendari Ximun Fuchs eta Xabier Mendiguren bera izan ziren Bilbon, pieza berriaren nondik norakoak ager-tzen. Mendigurenek bere lanaren konplexutasunaz hitz egin zuen: "Niretzat desafio handia izan da, ohituta bainago etxean idazten, neure bakardadean, eta oraingo honetan taldean lan egitea egokitu zait, eskarmentu luzea daukan zuzendariarekin eta aktore talde bikain batekin. Eta ohartu naiz benetako antzerkia egiteko oholtzatik gertu egotea ezinbestekoa dela". Adaptazioari buruz zera esan zuen idazleak: "Hamlet gure garaira, gure begietara, gure herrira ekarri dut, gaur egungo dramak isla-tzeko".

Ximun Fuchs-ek ere ez zuen larregi argitu nahi izan, igandeko ezusteak agerian ez jartzeko, baina aurreratu zuen Hamlet hau "euskaldun gazte bat" dela, "bere kezka eta pozeekin". Funtsean, "enigma bat".

Cargando comentarios...



Haz tu comentario

[Condiciones de uso](#)

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

ComentariosNúmero de caracteres (500/500)

[Soy usuario registrado](#)

Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#). Sólo tardará un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

Usuario registrado

Correo electrónico

Recordarme la próxima vez

[¿Olvidaste tu contraseña?](#)

¡Hecho!



Recibirás un correo electrónico para confirmar tu registro.

Enseguida te devolveremos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad



-
-
-
-
-
-

© Diario de Noticias-Edición Digital